

## Zer izapide egin behar dira elkarte bat sortzeko?

Elkarte bat eratzeko, lau oinarrizko ezaugarri bete behar dira.

- **Pertsona juridikoa**: zenbait pertsona edo kolektibok osatua.
- **Interes partekatua**: elkartutako pertsonen partekatzen duten helburu partikular edo orokor batekin sortzen da.
- **Irabazi-asmorik gabea**: elkarteak dituen etekinak, ondarea, dirua eta abar ezin dira bazkideen artean banatu, eta elkartearen helburua betetzeko erabili behar dira.
- **Funtzionamendu demokratikoa**: bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, eta Batzar Nagusia da organo erabakitzaile nagusia.

Edozein pertsona fisiko edo juridikok sor dezake elkarte bat, baldintza hauek beteta:

- Sustatzaileak **adinez nagusiak**, emantzipatutako adingabeak (16 urtetik gorakoak eta beren kontura bizi direnak) edo legezko tutoreen baimena duten emantzipatu gabeko adingabeak izatea.
- **Jarduteko gaitasuna** izatea eta beren egintzen erantzukizun juridikoa izatea.
- Beste pertsona edo erakunde batzuekin batera, **hiru edo gehiago badira**.

*Atzerritarrek (pertsona fisikoei dagokienez) elkarteak sortzeko edo horietan parte hartzeko eskubidea dute, kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeriari jarraikiz, betiere.*

Elkarte bat sortzeko baldintzak betetzen direnean, prozedura hau bete behar da:

1. Elkarte **eratzeko bilera**, fundatzaile guztien artean: erakundearen ESTATUTUAK bozkatuko dira eta Zuzendaritza Batzordeko karguak aukeratuko dira.
2. [Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan INSKRIBATZEKO](#) online eskabidea: eskatzen den dokumentazioa erantsi behar da (ERATZE AKTA eta ESTATUTUAK, fundatzaileen datu eta sinadurekin), PDF formatuan. Gainera, elektronikoki identifikatu behar da eskabidea online bete ahal izateko.

## Zer izapide egin behar dira elkarte bat sortzeko?

Elkarte bat eratzeko baldintzak betetzen direnean, prozedura hau bete behar da:

### 1 Elkarte eratzeko bilera:

**ESTATUTUAK** bozkatzea eta Zuzendaritza Batzordeko karguak aukeratzea.



### 2 INSKRIBATZEKO online eskabidea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Eregistroan **ERATZE AKTA** eta **ESTATUTUAK** PDF formatuan erantsi.



Identifikazio elektronikoa eta dokumentazioa PDF formatuan fundatzaileek sinatuta bidaltzea beharrezko da.



**BizkaiaGara**  
*Eginez izan · Tiempo de acción*